



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA



Aretxabaletako
Udala



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



eskoriatzako
udala



PRENTSA DOSIERRA



“Lanera bizikletan”

Sarrera

Lanera bizikletan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako eta Oñatiko Udalekin batera 2014ko azken hiru hilabeteetan zehar abian jarriko duen sentsibilizazio ekimena da. Ekintza honekin lanerako bidaiak edo joan-etorriak oinez edo bizikletan egitea sustatu nahi da. Debagoiena eskualdeko langileriarri zuzendutako sentsibilizazio kanpaina urriaren 15tik abenduaren bukaera bitartean egingo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren eskutik esperientzia pilotu bat antolatu du Debagoieneko lau udalekin elkarlanean etxetik lanera egiten dituzten joan-etorriak bizikletan edo oinez egitea sustatzeko. Esperientzia hau arrakastatsua balitz, beste eskualde batzuetara zabaldu nahiko luke Aldundiak.

Testuingurua

Erakunde antolatzaileetako arduradunek ezagutzen dituzte gure gizartean ibilgailu motordunen erabilera masiboak eragiten dituen kalteak, bai ingurumenean eta bai herritarren osasunean zein segurtasunean: istripuak, bihotzeko eta arnas aparatuko gaixotasunak geroz eta arruntagoak, estresa, kutsadura atmosferiko eta akustiko handia, aldaketa klimatikoaren bizkortzea, lur publikoaren okupazio maila altua, gastu publiko ikaragarria, eta abar.

Horregatik, bestelako eredu iraunkorrago eta seguruago bat bultzatzearen alde egitea erabaki da. Debagoienan eta Gipuzkoan, egunero sortzen diren joan-etorri gehienak (%36 inguru) lanak eraginda derrigor egin beharrekoak dira, eta horietatik %50 7,5 km baino laburragoak dira, eta beraz, oinez edo bizikletan egingarriak. Hala ere, oraindik bizikletan joan-etorri gutxi egiten dira (Aldundiak foru bidegorrietan egindako azken inkestaren arabera, txirrindulariek egindako bidaia guztien artean soilik %19 dira lanera joateko), eta beraz, hobetzeko eremu zabala dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzak eta Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko udalek uste dugu gaur egun motordun ibilgailuetan egiten diren joan-etorri asko oinez edo bizikletan egin daitezkeela azken urteetan osatutako bidegorri sareari esker (herrietako sareei eta foru sareari esker). Aldundiak eta Udalek enpresei lantokietan bizikletentzat aparkalekuak jarri ahal izateko laguntza eman dizkie, Lanera Bizikletan ekimena bultzatu asmoz.

Datu bitxiak:

- Auto bakar batek hartzen duen galtzadaren espazioan hamabi bizikleta ibil daitezke.
- Aparkatutako auto batek aparkatutako 10 bizikleten lekua behar du.
- Etxetik lantokirako distantzia 2 km baino gutxiagoa bada, oinez egin daitezke oso erraz; 20 bat minutu besterik ez dira behar.
- Hiri barruan, autoz egiten diren bidaien % 50a 3 km baino laburragoak izaten dira eta %10a 500 metro baino laburragoak. Bizikletan erraz egin daitezke, 20 minutu besterik ez baitira behar 5-6 km egiteko.
- Osasunaren Mundu Erakundearen OMEn arabera, bizitza sedentarioak urtean 1,9 milioi pertsona garaia baino lehen hiltzea eragiten du. Astean bost egunez 30 minutuko intentsitate gutxiko ariketa saioa eginez (ibili, pedalei eragin, eskailerak igo), bizitza sedentarioak eragiten dituen osasun arriskuei aurre egiten zaie.

Helburuak

Helburu orokor nagusia Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatin kokatutako lantokietara langileek oinez edo bizikletan egiten dituzten desplazamendu kopurua handitzea da. Horren harira, hurrengo helburu zehatzagoak jorratuko ditugu:

- Herritarrak kontzientziatzea hiri-mugikortasunean dauden arazoez, zehazki, lantokien inguruan sortzen direnez, eta mugitzeko eta lanera joateko modu iraunkorragoetara aldatzeko premiaz jabeaztea
- Informazio argia eta zehatza ematea lantokira oinez edo bizikletan joateko dauden aukerez, bai azpiegitura bai baliabide mailan, automobila eta bestelako motordun ibilgailurik erabili gabe.
- Bizikletan edo oinez desplazamenduak egitea pertsonalki esperimintatzeko aukera ematea, bizikletan edo oinez ibiltzearen abantailak norberak zuzenean frogatu ditzan.

Lanera oinez edo bizikletan joatearen onurak

Enpresei dagokienez:

- Ingurumenarekiko konpromisoa indartzen du.
- Langileen osasuna hobetzen laguntzen du.
- Aparkamendu eta zirkulazio arazoak murrizten ditu.

Langileari dagokionez:

- Bizikletan bideak azkarragoak dira.
- Dirua aurrezten laguntzen du: erregaia, auto konponketak...
- Osasungarria da oso: sistema immunologikoa indartzen du, kolesterola murrizten du, giharrak indartzen ditu, kaloriak erretzen dira...
- Atsegina da eta dibertigarria izan daiteke.
- Merkea da.
- Segurua da

Eta gainera ingurumena hobetzen laguntzen du, oinez edo bizikletan ibiltzean energia kontsumoa murrizten da eta ez dugu gas kutsagarrikerik edo zaratarik sortzen.

Kanpainaren mezuak

Aisialdian ibiltzeaz gain, lanera egiten ditugun joan-etorriak ere oinez edo bizikletan egin daitezke. Onurak ditu herritarren osasunean, ingurumenean eta hirigunean. Gure herriak egokiak dira horretarako: lantegiak gunen handitan elkarturik daude, bizilekuek gertu eta gainera, bidegorri sareak lantokiak eta bizilekuak lotzen ditu. Bien arteko joan-etorriak oinez edo bizikletan modu eroso eta seguruan egin daitezke, autoa hartu beharrik gabe. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainera, lantegietan bizikletan aparkalekuak banatu ditu.

Mugi gaituzen bizikletan edo oinez lanera joateko. Bizikletan ibiltzeko ohiturarik ez baduzu ere, geuk lagunduko dizugu!

Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñatin, lanera bizikletan!

Debagoienan eta Gipuzkoan, egunero sortzen diren joan-etorri gehienak (%36 inguru) lanak eraginda derrigor egin beharrekoak dira, eta horietatik %50 7,5 km baino laburragoak dira.

Komunikazio kanpaina

Kanpaina zabaltzeko abian jarri ditugu zenbait komunikazio tresna, hala nola:

- Herri bakoitzean bilera informatiboak antolatuko dira. Ekimenaren aurkezpena indartzeko, egokia ikusten dugu hitzaldi bana antolatzea lau udalerrietan. Saio horietan kanpainaren aurkezpena, helburuak, baliabideak, ibilbideak, onurak azalduko dira; beti ere, modu argi eta erakargarrian.

Informazio bilerak lau udalerrietan

Udalerria	Eguna	Ordua	Lekua
Oñati	Urriak 21	19:00	Udalbatza aretoa
Eskoriatza	Urriak 23	18:30	Ibarraundi museoa
Aretxabaleta	Urriak 27	19:00	Kultur Etxea
Arrasate	Urriak 30	18:30	Kultureteko Jokin Zaitegi gela

- Informazio euskarriak, foiletoak, kartelak.
- Herritarrez osatutako erabiltzaileen sarea osatzen ari gara. Gure weblog delakoan internauta bakoitzak izena emateko aukera izango du informazioa jasotzeko eta sarearen erabiltzaile bihurtzeko.
- Doako telefono zenbaki bat (900.102.716) eskainiko zaie herritar guztiei kanpainarekin lotutako edozein zalantza argitzeko edo informazioa osatzeko. Asteleheneetik ostiralera bulego orduetan (8:30-17:30) emango diogu arreta.

- Prentsa bulegoa abian jarri dugu: komunikabideetako lankideei lana errazteko eta elkarrizketak kudeatzeko zerbitzua abian jarri dugu.
- Bloga eta sare sozialak: Eskualdean informazioa zabaltzen laguntzeko eta bizikletan edo oinez joatearen onuretan sentsibilizatzeko astero bloga eta sare sozialak elikatuko dugu herritarrekin parte hartzea sustatzeko. Bertan albisteak, postak, argazkiak eta ikus-entzunezko bideo laburrak zabalduko ditugu.
- Tokiko komunikabideetan, publizitate kanpaina abian jarriko dugu.
- Eskualdeko zenbait dendetan sarearen erabiltzaileek deskontuak eta abantailak izango dituzte.

Parte hartzeko

Langileek, enpresek eta sarearen erabiltzaileek modu ugari dituzte kanpainan parte hartzeko.

1. Parte hartu lanera bizikletan edo oinez joanez.
2. Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 900.102716 doako telefonora.
3. Jarraitu gure bloga. www.lanerabizikletan.net
4. Parte hartu sare sozialen bidez: Facebook, Twitter, Youtube edo Instagram.
5. Eman izena sarean. Ekimen honen erabiltzaile edo aldekoa bazara, eman zure izena eta abantaila ugari izango dituzu:
 - Informazio zehatza eskura.
 - Arreta pertsonalizatua.
 - Abantailak erosketetan eta konponketetan.